

EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien ohiko prozesuaren bidez lan kontratudun langile finko gisa sartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzeko dena.

Errektorearen 2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratzea agindu zen.

2022ko azaroaren 30ean, argitaratu ziren UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileak I., II., III. eta IV. taldeetan lan kontratudun langile finko gisa sartzeko ohiko prozesua arautzeko oinarri espezifikoak.

2023ko martxoaren 27an argitaratutako onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenden erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, zerrenda horiek aztertu eta baietsitako erreklamazioetatik eratorritako aldaketak egiten dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen I., II., III. eta IV. taldeetan ohiko prozesuaren bidez lan kontratudun langile finko gisa sartzeko deialdi espezifikoetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, dagozkien eranskinetan, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraztea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 7.5 eta 10.3 oinarrietan adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUko web orrian argitaratzea (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-lan-kontratudunen-ezohiko-prozesua>) baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

Hirugarrena.- 6.3 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera, hamar egun balioduneko epea ematea izangaiei, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, nahi dituzten merezimenduak alegatu eta egiazta ditzaten.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari

diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, Prozeduren katalogoa eta **AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea** aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoen eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoen sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

UPV/EHUko erregistroen arloko laguntza-bulegoak eta horien ordutegia honako helbide honetan kontsulta daitezke: http://www.ehu.eus/oficinas_registro.html

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe horiek deialdian adierazitako hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Errektoreak 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskumenak erabiliz
(2021eko otsailaren 12ko EHAA)

MIREN LOREA BILBAO ARTECHE
UPV/EHUko GERENTEA